

**ZINEGOTZI BATEK EGIN DITZAKEEN
GALDERA OHIKOENAK**



AURKIBIDEA

- 1. Zergatik arduratu behar du orain udalak haurrez eta gazteez? 3**
- 2. Zuek lantzen dituzuen gaiak ez dira gazteak kezkatzen dituztenak (etxebizitza, enplegua, autogestiorako espazioak edo alokatutako lokalak, kontzertuak, diskogaztea, e.a.) 5**
- 3. Zergatik jarri behar ditu udalak hezitzaileak ekipamenduetan? Gune bat besterik ez da behar, eta gazteak arduratuko dira hura mantentzeaz. 6**
- 4. Zergatik egin behar diogu kasu Aldundiak esaten dionari? Geuk markatu behar dugu gure politika. 7**
- 5. Baina gero beste bat etorriko da eta beste zerbait egin behar dela esango du... 8**

1. Zergatik arduratu behar du orain udalak hurrez eta gazteez?

- *Kulturako, euskarako, kiroleko edota informazio-bulegoko zerbitzuen bitartez zaintzen ditugu eta!*
- *Udalekuak antolatzen ditugu!*
- *Ardura daitezela gurasoak! Ez da gure lana etengabeko zaintza-zerbitzu bat mantentzea.*
- *Udalak nahikoa diru gastatzen du haiekin, ez du lehentasunik.*
- *Administrazioaren lana ez da gazteen bizitza antolatzea, beraiek oso ondo dakite zer nahi duten eta zer behar duten; primeran antolatzen dira beren astialdian. Guk haien eskaerei lagundu besterik ez dugu egin behar.*
- *Badira haietaz arduratzen diren elkarteak.*

Halako erantzun asko entzun daitezke herritar askoren ahotan, baita arduradun politikoen ahotan ere.

Lehenik, esan beharra dago egia dela hainbat udal-zerbitzutatik hurrei eta gazteei arreta ematen zaiela. Halaz ere, hurren eta gazteen sustapeneko zerbitzuek hartzaroan eta gaztaroan luzatuko den hezkuntza-jarduera koherente eta jarraitu bat planteatzen dute.

Ez gara hitz egiten ari, beraz, jarduera bakartu edo puntualak burutzeaz, ezta besterik gabe hurrei eta gazteei beren astialdirako zereginak emateaz ere. Zerbitzu egonkorak eskaintzea da helburua, hau da, hurrei eta gazteei hezkuntza-helburuak lortzen laguntzeko

eta autonomoak, askeak eta gizartean inplikaturako pertsonak izatera iritsi daitezen gaitzeko zerbitzuak eskaintzea.

Gaztematikan planteatzen diren haurren eta gazteen sustapenerako zerbitzuek, jakina, gutxietsi ezin den kostu ekonomiko bat dute. Gure iritziz, proposaturako zerbitzuek hezkuntza-arreta eskaintzeak, alegia haurrek eta gazteek familiaren eta hezkuntza-sistemaren bitartez jasotzen dutenaren osagarri dena eskaintzeak justifikatu egiten du eskatzen ari garen ahalegin ekonomiko publiko hori. Hala, uste dugu haurren eta gazteen sormena, herriarekiko konpromisoa, parte-hartze soziala, e.a. garatzen lagunduko diegula eta, aldi berean, olgetarako jarduera gustagarriak burutuko ditugula.

Gure planteamenduak berekin dakar, profesional kualifikatuen eta baliabide publikoen bitartez, haurren eta gazteen ekimenak indartu eta bultzatzeko konpromisoa; ekimen horiek bakarka sortzen direnak nahiz taldean sortuak izan daitezke. Haurren eta gazteen ekimenak beren patuaren esku bakarrik uzten dituztenen aurrean, **Gaztematika**n pentsatzen dugu sustapenaren esparruko profesionalak behar-beharrezkoak direla haurren eta gazteen parte-hartzea sustatzeko; izan ere, haiek duten ezagutza tekniko egiaztatuak ekimen horiek indartu eta hobetzeko gaitzen ditu.

2. Zuek lantzen dituzuen gaiak ez dira gazteak kezkatzen dituztenak (etxebizitza, enplegua, autogestiorako espazioak edo alokatutako lokalak, kontzertuak, diskogaztea, e.a.)

Gaztematikaren asmoa ez da haurren eta gazteen era guztietako beharrentzako erantzun bakarra izatea. Egia da haiengan eragina duten hainbat gai, esate baterako etxebizitza, enplegua edo osasuna, beste sistema eta administrazio batzuen eskumenekoak direla, baina halaz ere, **Gaztematikari** interesatzen zaizkion eremuak dira.

Horregatik **Gaztematikak** sistema horiekin lan egiteko asmoa du, ekintza partekatuetan elkarlanean aritzeko, eta haiek beren funtzionamenduari eta beren jarduerari haurren eta gazteen ikuspegia erantsi diezaioten eragiteko.

Gune autogestionatuei, lokalei, kontzertuei e.a. dagokienez, gazteak sustatzeko esparruak dira guztiak eta, beraz, **Gaztematikaren** arreta merezi dute, jakina, udal-errealitate bakoitzari egokituta.

3. Zergatik jarri behar ditu udalak hezitzaileak ekipamenduetan? Gune bat besterik ez da behar, eta gazteak arduratuko dira hura mantentzeaz.

Gorago adierazi dugunez, haurren eta gazteen sustapenaren esparruan erantzukizun publikoak kalitatezko zerbitzuak ematea esan nahi du eta, gure ustez, horretarako, zerbitzu horien kudeaketak profesional kualifikatuen eskuetan egon behar du.

Kontua ez da gazteak beren astialdian lanpetuta edukitzea, edo dibertitzea, baizik eta hezkuntza-helburu batzuk betetzea; eta horiek lortzeko haurtzaroan, nerabezeroan eta gaztaroan eskaintzeko arreta-continuum bat bermatu nahi dugu.

4. Zergatik egin behar diogu kasu Aldundiak esaten dionari? Geuk markatu behar dugu gure politika.

Gaztematika sartzen diren udalek esparru honetan beren udal-autonomiari eusten diote guztiz eta betiko, eta hala behar du. Hortaz, ez daude inolaz ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren aginduetara.

Sare honetan parte-hartzea askea eta norberaren borondatezkoa da, eta honen bitartez baliabideak, prozesuak eta emaitzak partekatu nahi dira haurren eta gazteen sustapenarekin lotutako guztian.

Gaztematika Foru Aldundiaren eta udalen funtzionamendurako jarraibide adostuak zehazteko lan egiten da, bertako kideek bidea elkarrekin egin dezaten eta arian-arian beren lanean erreferentziazko estandar komun batzuetara hurbildu daitezen.

5. Baina gero beste bat etorriko da eta beste zerbait egin behar dela esango du...

Edozer gauza gerta daiteke bizitzan, baina zaila dirudi hori gertatzea. Hain zuzen, kontuan hartu behar da **Gaztematika**ren planteamenduak Gipuzkoako sustapeneko ia teknikari guztiek lortutako adostasun zabala duela euskarri. Gainera, adostasun hori hausnarketa- eta eztabaida-prozesu luze baten ondoren lortu da, eta ondoren EUDELeK eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu dute.

Horri erantsi behar zaio bere planteamenduetako asko aintzat hartu direla une honetan izapidetzen ari den Gazteriaren Euskal Legearen azken zirriborroa egiteko orduan. Eta hori guztia gutxi balitz, **Gaztematika**k, halaber, hainbat laudorio jaso ditu EAEko gainerako lurraldeetako arduradun teknikoen aldetik.

**ZINEGOTZI BATEK EGIN DITZAKEEN
GALDERA OHIKOENAK**

